

Eguneratze honetan, orain arte egindako aurrerapenen eta lortutako mugarri nagusien laburpena aurkezteko plazerra dugu, gure konpromiso partekatua eta egindako ahalegin kolektiboa islatuz.

Ostalaritza sektorean behar bereziak dituzten pertsonen mentoreentzako garatutako tresna berria.

Azken hilabeteetan, enpresetako tutoreentzako e-book baten garapenean lanean jarraitu dugu. Hau, ostalaritza sektoreko tutoreei desgaitasuna duten ikasleekin egiten duten lanean laguntzeko diseinatuta dago.

Zertarako balio du?

E-bookaren helburua, tutoreei orientazio praktikoa eskaintzea da, haien beren eguneroko lanean erraz kontsultatu eta aplikatu ahal izan dezaten.

Zer eskaintzen du?

Adibide praktikoak, benetako egoerak eta ostalaritza sektorearen beharretara egokitutako orientazio operatiboak eskaintzen ditu.

E-booka sei kapitulutan egituratuta dago, eta bakoitzak bere tresna-kutxa propioa du, praktikako aplikazioa errazteko baliabideak eskaintzen dituena.

1: Lan-ingurunearen eta enpresa-ingurunearen prestaketa




2: Laneratzeko estrategiak



3: Egokitzapenak



4: Komunikazio eraginkorrerako teknikak



5: Jokabide- eta harreman-arazoak kudeatzeko estrategiak



6: Jarraipena eta ebaluazioa



Herakliongo aurrerapenak

Pozik gaude Heraklionen egin berri dugun bazkideen nazioarteko bileraren (TPM) alderdi nagusiak partekatzeaz. Bileraren arrakasta, neurri handi batean, gure bazkide den Herakliongo Merkataritza eta Industria Ganberaren (EMPORIKO KAI VIOMICHANIKO EPIMELITIRIO HERAKLIUO) laguntza eta lankidetzari esker izan da.



Bilera honetan, bazkideek Lanbide Heziketako prestatzaileentzako lineako ikastaro masibo eta irekiaren (MOOC) eta tutoreen curriculumaren aurrerapenak aurkeztu eta berrikusi zituzten. Materialak eta baliabideak partekatu zituzten, eta e-learning ikastaroa hobetzeko eztabaidetan parte hartu zuten. Gainera, hurrengo urratsak zehaztu ziren, besteak beste, proiektuaren etorkizuneko mugarrak.

Webgunearen eguneraketak

<https://patchproject.eu/>



SCAN ME



Konektatuta jarraitu!

Ikaskuntza-erperientzia etengabe hobetzeko konpromezuan, pozarren jakinarazten dugu gure webguneak erabat aktibo jarraitzen duela eta aldizka eguneratzen dela. Plataformaren bidez proiektuaren aurrerapenen berri ematen jarraitzen dugu, gure komunitatea informatuta eta konektatuta mantentzeko helburuarekin.

Gure aurrerapenen eta hurrengo mugarriaren berri ematen jarraituko dizuegu!



Co-funded by
the European Union

Europar Batasunak finantzatua. Hala ere, adierazitako iritzi eta ikuspegiak egileenak baino ez dira, eta ez dute zertan islatu Europar Batasunaren edo Hezkuntza eta Kultura arloko Europako Agentzia Exekutiboaren (EACEA) iritzia. Ez Europar Batasuna ezta EACEA ere ezin dira horien erantzule egiten.